ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

BALDINTZA TEKNIKOAK

Espte zkia: 2026-43
Kontratu-mota: Zerbitzua
Kontratuaren xedea: Ondarroako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei ikastetxeetan bertso-eskolak ematea, hezkidetzaren ikuspegitik
Kontratatzeko prozedura: Ireki sinplifikatua
Kontratuaren arduraduna: Udal euskara teknikaria

0. SARRERA

Ikasleek, Lehen Hezkuntzatik hasita, euskara euren egunerokoan normaltasunez erabil dezaten ezinbestekoa da hizkuntza bizia ikastea eta modu atseginean lantzea. Ohiko bide formaletatik kanpo, ahozko generoari lotutako atsotitzak, kantuak, koplak eta antzeko baliabideak erabiltzea gakoa da hizkuntza lantzeko.

Ildo horretatik, bestalde, udal euskara arloko Ekintza-Planean jasota dauden ekintzetako bat, hain zuzen, bertsolaritza lantzeko saioak antolatzea da euskararen ahozko erabilera indartzeko.

Horrekin batera, lanketa horrek balio hezitzailea behar du izan, hezkidetzan oinarrituta; izan ere, udalak eta ikastetxeek hezkidetza egitasmoa lantzen ari baitira eta urte askotako bidea egin dute elkarrekin. Hezkidetza proiektua pedagogiko iraunkorra da, berdintasuna eta hezkidetza oinarri dituena. Ekimen puntualetatik harago, ikasleen hezkuntzan eta jarreretan eragin nahi du, genero estereotipoak hausteko, aniztasuna errespetatzeko eta parekidetasunean oinarritutako gizartea eraikitzeko helburuarekin. Horrekin bat eginik egin behar da udalak ikastetxeetan bultzatutako beste edozein lanketa.

Ondarroako Udalak bertso-eskolak eskaini izan dizkie herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei 2013az geroztik. Ikastetxeei eskatutako balorazioak erakutsi du mantendu beharreko programa bat dela.

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2026-07-20 10:34:41(UTC) Fecha: 20/07/2026 10:34:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ Data: 2026-07-20 11:58:53(UTC) Fecha: 20/07/2026 11:58:53 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7c969de8-3af6-4bd1-a89e-1935a8465de5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Horrez gain, Udalak, aspaldiko urteetan antolatu izan du Arri-Botx izeneko bertso-paper lehiaketa. Horri ere segida ematea da kontratazio honen asmoa.

1. KONTRATAZIOAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Ondarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei bertso-eskolak ematea, euskal kulturaren adierazpide garrantzitsuenetako baten oinarrizko ezagutza izan dezaten eta hezkidetzaren ikuspegia txertatuz.

Helburu zehatzak hauek dira:

- Bertsozaletasuna bultzatzea, euskararekiko jarrera positiboa indartuz eta hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia garatuz.
- Jendaurreko emanaldi bat burutzeko oinarrizko betekizunak ezagutzea eta egoki baliatzea.
- Balio hezitzailea izatea eta, bereziki, genero ikuspegitik harreman berdinzaleak sustatzea.

2. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Espediente honen arduraduna Udaleko hezkuntza arloa da eta Udal arduradun teknikoa, berriz, udal euskara teknikaria. Adjudikaziodunak haiekin izango du hartu-emana.

Zerbitzuaren barruan sartzen dira jarduera guztiak diseinatu, antolatu, sustatu, zuzendu eta gauzatzeko betebeharra, ezaugarri hauen arabera:

- **Hartzaileak**: Ondarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak.
- **Tokia:** Saio guztiak ikastetxeetan bertan emango dira.
- **Saio-kopurua**: 31 saio emango dira ikasturteko eta taldeko; saio bakoitza ordubetekoa izango da. Erreferentzia orain arteko saio-kopurua da, lau ikasgelakoa. Beraz, 4 talde egingo dira, era honetara banatuta:

Ikastetxea	Maila	Orduak astean
Zaldupe Eskola Publikoa	6. maila	3
Zubi Zahar ikastola	6. maila	1

- **Prezio publikoa**: doakoa.

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2026-07-20 10:34:41(UTC) Fecha: 20/07/2026 10:34:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ Data: 2026-07-20 11:58:53(UTC) Fecha: 20/07/2026 11:58:53 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7c969de8-3af6-4bd1-a89e-1935a84654e5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

- **Bertso-eskoletarako egutegia:** ikasturteko programazioa da. Egutegia eta ordutegia ikastetxe bakoitzeko arduradunekin adostuko da.
- **Komunikazioa**:
  - Publizitatea adjudikaziodunaren esku geratuko da eta erabilitako euskarri guztietan Ondarroako Udala antolatzaile moduan agertuko da.
  - Komunikazio-ekintza guztiak adjudikaziodunak zabalduko baditu ere, udaleko komunikazio bulego honetara bidaliko dira: komunikazioa@ondarroa.eus
    Komunikazio-ekintza moduan hartuko dira ikasturte amaierako ekitaldiak iragarriko dituen kartela egitea eta egin ondoren, dokumentu grafikoak aurkeztea.
- **Ekintza osagarriak**: ikasturte amaieran ekintza hauek antolatuko dira: bertso-topaketa eta Arri-Botx izeneko bertso-paper lehiaketa. Antolakuntzako gastuak adjudikaziodunaren gain geratuko dira. Ekintzen ezaugarriak hauek izango dira:

  1) Eskolarteko bertso-topaketa ikasturte amaieran, bertso-eskoletan ari diren ikasleek euren bertso sorta, antzerki edota asmakizunak kantatzeko. Ekitaldi berean hartuko dute parte bertsolari batek, abeslari batek eta bertso eskolako irakasleak.

  2) Arri-Botx bertso-paper lehiaketa. 2015ean egin zen estreinakoz Ondarroan. Bertso-topaketa egiten den egun berean egin ohi da Arri-Botx bertso-paper lehiaketako sari-banaketa. Epaimahaia bertsolaritza irakasleak eta bertso-eskolak osatzen dute.
- **Zerbitzuaren jarraipena**: Zerbitzuaren nondik norakoa aztertzeko etengabeko hartu-emana izango dute udalak eta adjudikaziodunak.
- **Zehar-lerroen tratamendua**: jarduera guztietan zehar-lerro hauek garatuko dira:
  - Euskararen erabilera sustatzea: Euskaraz hazi, hezi eta bizi aisialdian ere.
  - Hezkidetza: herritar guztien arteko aukera berdintasuna genero estereotipoetatik at dago; hortaz, harreman berdinzaleak sustatuko dira eta kontuan izango dira gaiak eta kontzeptuak lantzen direnean.
  - Inklusioa: aniztasun funtzionala kontuan izatea, ezgaitasunen bat duten ikasleei laguntzea eta gizarte abileziarik ezaren aurrean laguntza-bideak eskaintzea.

- **Dokumentazioa**: Ikasturte hasierako proposamena eta ikasturte amaierako memoria.
  Memoriaren edukiak:
  - Talde-banaketa eta osaera eta lagun-kopurua.
  - Partehartzaileen datuak: talde bakoitzeko ikasle-kopurua eta sexu aldagaia.
  - Ekintza osagarriak: egutegia, lekua eta partehartzaile-kopurua.

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2026-07-20 10:34:41(UTC) Fecha: 20/07/2026 10:34:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ Data: 2026-07-20 11:58:53(UTC) Fecha: 20/07/2026 11:58:53 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7c969de8-3af6-4bd1-a89e-1935a84656e5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

- Dokumentazio grafikoa: kartelak eta partehartzaileekin ateratako argazkiak.
- Helburuen betetze-maila, irakasleen nahiz ikasleen balorazioarekin.

3. EGUTEGIA ETA KRONOGRAMA

Zerbitzua ikasturtearekin batera garatuko da, hau da, irailetik ekainera, uztailean eta abuztuan, ostera, eten egingo da.

Astean behin eskainiko dira eskolak herriko bi ikastetxeetan eskolako ordutegian. Egutegi eta ordutegia zehaztea esleipendunaren ardura izango da eta ikastetxeen beharrizanen arabera, aldaketak egiteko malgutasuna egongo da, betiere enpresaren eta udalaren artean adostuta.

2026-2027 ikasturteetan hasiko dira eskolak kontratua formalizatzen denetik maiatzaren 31ra bitartean eta ekainean, memoria aurkeztuko da. Aurreikuspena da 2026ko irailaren 1ean hastea.

Kontratua luzatuz gero, ostera, zerbitzua berriz ere hasiko da luzatuko den urteko irailaren 1ean eta hurrengo urteko ekainean amaitu.

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2026-07-20 10:34:41(UTC) Fecha: 20/07/2026 10:34:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ Data: 2026-07-20 11:58:53(UTC) Fecha: 20/07/2026 11:58:53 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7c969de8-3af6-4bd1-a89e-1935a8465de5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Honako profila behar da:

- Unibertsitate titulua: gutxienez, diplomatura edo gradu-titulua.
- Euskararen gaitasun-maila: Europako Erreferentzia Markoaren C1 edo baliokidea.
- Bertso-eskoletako irakaskuntza-eskarmentua.
- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean ez egotea egiaztatzea.

Baliabide materialak esleipendunaren kontura izango dira.

Ondarroan, sinadura digitaleko egunean

Espedientearen kudeatzailea - Maite Rey - Udal euskara teknikaria

EGINBIDEA: Ondarroako alkateak 2026/908 dekretu bidez agiri hau onartu du 2026ko uztailaren 20an

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2026-07-20 10:34:41(UTC) Fecha: 20/07/2026 10:34:41 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ Data: 2026-07-20 11:58:53(UTC) Fecha: 20/07/2026 11:58:53 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7c969de8-3af6-4bd1-a89e-1935a8465de5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.